


## Sequoia sempervirens-aren banaketa Gipuzkoan

Sekuoiak ez ditu hektarea asko hartzen Gipuzkoan, lurraldeko zuhaitz-azalera osoaren % 1 baino gutxiago, baina erreferentziatzko espezieetako bat da, agian gogokoena, pinudi zaharren birpopulaketan. Eta espezie honetako zuhaitz gehiagorik ez badago, duela urte batzuk landararik izan ez delako da.

2020ko baso-maparen arabera, eguneratu berria eta otsailean argitaratua, 711 hektarea sequoia sempervirens ditugu lurralde osoan, eta eskualdeka oso ezarpen desberdina du. Izan ere, sequoia guztien % 40,8 Urola Kostan daude, % 19 Goierri eta % 17,2 Tolosaldean. Nolanahi ere, Urola Kostan, ezarpen handiena duen eskualdean, zuhaitz hori zuhaitz-masa osoaren % 1,6 baino ez da. Donostialdean oso gutxi dago eta Bidasoaldean, berriz, ia deus ez.

Udalerriei dagokienez, Zestoa (119 hektarea) da sequoi gehien dituen udalerria, zuhaitz-azaleraren % 5, eta, ondoren, Azpeitia (78 hektarea eta zuhaitz-azaleraren % 1,8) eta Azkoitia (50 hektarea eta % 1,4). Hala ere, Olaberriean, koniferoaren 13 hektareak udalerriko zuhaitz-masa osoaren 331 hektarea urrien % 6 dira. Bertan du presentzia erlatibo handiena.



## **Ranking de pueblos**

1. Zestoa:----- 119 hektarea
2. Azpeitia:-----78 hektarea
3. Azkoitia:----- 50 hektarea
4. Ezkio-Itsaso:----- 36 hektarea
5. Beasain:----- 33 hektarea
6. Bergara:----- 27 hektarea
7. Tolosa:----- 23 hektarea
8. Elgoibar:----- 22 hektarea
9. Lizartza:----- 19 hektarea
10. Elduain:----- 18 hektarea
11. Zumaia:----- 16 hektarea
12. Errezil:----- 14 hektarea
13. Eibar----- 14 hektarea
14. Olaberria----- 13 hektarea
15. Legazpi----- 13 hektarea

**GIPUZKOAN: 711 hektarea**, zuhaitz-masa guztiaren % 0,6.

**GIPUZKOAKO**  
**BASO ELKARTEA**

---

ASOCIACIÓN DE PROPIETARIOS  
FORESTALES DE GIPUZKOA